

ASTIALDIA > EUSKAL HERRIKO TXOKOAK



Alde zahararen erdigunean dago Andre Mariaren eliza. JACOB MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Kultura eta aisia, bateraturik

Kulturaz eta naturaz gozatzeko aukera zabala dago Errenterian (Gipuzkoa). Bertara doanari alde zaharretik ibiltzeko gomendatu behar zaio, baita San Markoko gotorlekua bisitatzeko ere. Erosketak egiteko, Niessen saltoki gunea dago, eta, gainera, pintxotarako eta parrandarako taberna ugari daude.

ESTITXU ZABALA

Errenteria

Errenteria kultura eta aisialdirako tokia da aldi berean. Historiako aztarnak aurkitzeko alde zaharra joan beharra dago; naturaz gozatzeko, berriz, San Markoko gotorlekua eta Aiako Harria parke naturala bisita daitezke. Aisialdiari begira, ezin aipatu gabe utzi Niessen saltoki gunea, bertan denda ugari eta zinema baitaude. Bestetik, pintxo taberna ugari eta parrandarako aukera ere badago herrian.

Gipuzkoako ipar-ekialdean dago Errenteria, Donostiatik

zazpi kilometrora, Oarsoalde eskualdean. Eskualde hori Errenteria, Oiartzun, Pasaia eta Lezo herriek osatzen dute. Udalerriak 31 kilometro koadro dauzka, eta 39.000 biztanle inguru. Biztanle kopuruari dagokionez, Gipuzkoako hirugarren herria da.

Azken hogeitaz urteetan, aldaketa handiak izan ditu Errenteriak. Berrikuntzak batez ere industrian izan dira, hirigunetik urrundu eta industrialdeetan jarri baitira gehienak. Bertako industria mugimenduaren ondorioz, XX. mendearen hasieran Manchester txikia deitzen zioten Errenteriarri.

IZEN UGARIKO HERRIA. Alfontso XI.ak

Donostiako Forua jaso zuenean eratu zen Errenteria, 1320an, Villanueva de Oiarso izenarekin, Orereta herrixka zegoen tokian. Garai hartan, Lezo, Oiartzun eta Pasaia sartzen ziren bertan, Orereta herriekin batera, baina laster, 1456an, Errenteria izena hartu zuen, portuko merkataritza jardueraren ondorioz. Izan ere, han ordaintzen ziren Pasaia portuan deskargatutako itsas merkantziak, beraz, hortik dator izena: *errenta herri*. Gainera, 1453an, Oiartzundik guztiz bereizteko, izen ofiziala Renteria hartzea erabaki zuten.

Azken hamarkadetan, Errenteriaren euskal izenak Orereta izan beharko lukeela aldarrikatu dute bertako zenbait alderdi sozial eta kulturalak. Helburu horrekin, *Orereta*, *izena eta izana* azterketa aurkeztu zioten Euskaltzaindiari, baina hark Errenteria hobetsi zuen, eta horixe da egun herriaren izen ofiziala.

HIRIGUNE HISTORIKO GARRANTZITSUA.

Erdi Aroko hirigune historikoa Oarsoaldeko zabalena da, eta, gainera, Eusko Jaurlaritzak ondasun historiko izendatu du.

Hirigune historikoak, antzina-ko herriaz gainera, XV. mendeko zabalgunea du, «deigarria da, zabalgunea gehienak XIX. mende-koak baitira», azpimarratu du Marisa Fernandez Oarsoaldeko turismo teknikariak. Goiko kaleak, Andre Mariaren elizaren eskuinera, Eliz kaleak, Erdiko kaleak eta Beheko kaleak osatzen dute hirigune zahar harresitua. «Hogeitaz garrantzitsu baino gehiago daude katalogatuak, beraz, bisitariarentzat onena, alde zaharreko kaleketatik ibiltzea da, oso gauza interesgarriak aurkituko baititu», dio Fernandezek.

Harresien aztarnarik ia ez da gelditzen. Hala ere, Goiko kalean Torrekoa eta Morrontxo dorretxeak daude. Horiek harresiaren zati ziren, eta Nafarroako ateko sarbidea kontrolatzen zuten. Azpimarragarriak dira harrariz osatutako zenbait oinetxe, bereziki, Zubiaurre jauregia, Arranbide etxea eta Kapitain-Enea etxea.

Alde zahararen erdigunean dago udaletxea, 1603an eraikitakoa. Euskal udaletxeen tipologia du; hala ere, eraikinaren aurrealdean ez ezik, alde batean ere armaria du. Errenteriako armarrarian dorre bat ageri da itsas olatu batzuen gainean, itsasoari lotutako lehenaldiaren oroigarri moduan. Horren gainean, erramu batzuk daude, orreak izan daitezkeenak, hortik dator Orereta izena, *orrea tokia*. Udaletxearen aurrean Jasokundeko Andre Mariaren parrokia eliza dago. 1523an hasi ziren eraikitzen, eta 50 urte pasatu ziren eliza bukatu zuten arte. Merezki du bisitatzea, baina orain ezin da barnera sartu, zaharberritze lanetan ari baitira.